

## "Denboraldi eskasa izan den arren, sagardotegiak zabalik daude eta sagardoa egon badago"



Bizkaiko sagardogileek denboraldiaren inaugurazioa bertan behera uztea erabaki dute. Uzta eskasa izan dela diote Bizkaiko ekoizleek. Zornotzako Uxarte sagardotegian, asteburuan hasiko dute denboraldi berria, urtero legez, txalapartari eta bertsolariekin. • 2-3



## San Agustin Kulturgunea barre-algarekin betetzeko prest

**Durango** • Durangoko Euskal Herrian Euskarazek umorezko bakarriketen saioa antolatu du hilaren 27rako. Bost kontalari egongo dira. Tartean, Joana Ocaña eta Gorka Madrazo. Ekitaldia 19:00etan hasiko da. • 5

## Emakumeen kartzelan errepresaliatu zituztenei, oroimena eta aitortza



GEREDIAGA ELKARTEA

**Durango** • Mila emakume presok errepresio frankista gogorra jasan zuten Durangoko emakumeen kartzelan (1939-1940). 5 emakume eta 6 ume hil ziren bertan. Hori dela eta, Durangoko Udalak, elkarte feministek eta memoria historikoa lantzen duten eragileek omenaldi ekitaldi bat egingo dute zapatuan. 13:00etan izango da, Neversen. • 4

## Ezkurdi Jai Alai lepo inaugurazioan: agortu dira zestako sarrerak

**Durango** • Ez dago sarrera gehiagorik urtarrilaren 27ko partidua ikusteko; egun bi geroago goi mailako pilota partidua egongo da. • 21





**Jose Antonio  
Zamalloa Aramendi**  
Uxarte sagardotegia  
ZORNOTZA | 1958

## "Iaz ez zuen ia euririk egin eta hego-haize erreak sagarrondoan uztarik gehiena hondatu du"

Uxarten gaur ekingo diote sagardotegi denboraldiari Zornotzan. Uzta "eskasa" izan dela aitortu du Jose Antonio Zamalloa Montorra auzoko sagardotegiko jabeak

**ZORNOTZA • E. HERRERA / J. GUENETXEA**  
Bizkaiko sagardogileek elkarregaz egiten duten denboraldi hasierako jai bertan behera utzi duten arren, sagardotegi denboraldiari ekin diote. Zornotzako Uxarte sagardotegian urteroko jai egingo dute gaur. Prestaketa guztiak egin dituzte aurturaren "parranda ederra" ziurtatzeko. Jose Antonio Zamalloa Uxarteko jabeak adierazi du eguraldi sikuak uzta kaltetu duela. Hala ere, sagardoa prest dago eta sagardotegiek zabalik dituzte ateak.

**Zelan joan da aurtengo uzta?**

Izatez 2022ko uzta da. Uzta negar-

garria izan zen, txarra. Berez, ez zen sagar urtea. Sagarrondoek urte birik behin ematen dute uzta ona, eta aurreko urte urte ona izan zen. Gutxi zetorren eta eguraldiak ehuneko ehun baldintzatu du. Sikate handia egin zuen. Baina, hortik aparte, beste urte batzuetan hile pare bateko sikatea egin arren, gero, udazkeneko euriekin konpondu egiten da. Oraingoan ez du euririk egin eta hego-haize erreak sagarrondoan uztarik gehiena hondatu du. Nahiko sagarrondo handiak izan arren, haiek ere fruta ematen hasi ziren, nahiz eta berantiarrek izan. Emaizta orokorra oso eskasa

izan zen. Sagar baldintza eskasetan, eta gutxi.

**Klima aldaketak zelan eragin du?**

Txakolinaren edo Errioxako ardoaren kasuan, mahats-bilketa goizago egiten hasi dira. Baina, sagarraren kasuan, horrelako sikate batekin min handiagoa egiten du. Klima aldaketaren ondorioa da, baina egoten dira horrelako zikloak. Urtero horrela badabil, kito. Sagardoa aguakateekin egin beharko genuke (barrez). Klima aldaketak eta tenperaturaren gorakadak beste eszenatoki batera garamatza, baina ez dakit hain epe laburrean ikusiko dugun.

**Eta prezioen igoera? Sektore guztietan igarri da.**

Orokorra da. Sagardoaren kasuan, puntu txarrago batetik hasten da. Lehendik ere botilaren prezioa desfasatuta egon da. Beraz, elementu guztien prezio igoeragaz, kristala eta kartoia esate baterako, egoerak

Horrek gordindu egiten du egoera. Sikate luze batez sagardogileek sufritu egiten dute. Ez dugu onartzen bertoko sagarragaz ekoizten ez duen kiderik, eta, beraz eragina zuzena da.

**Denboraldi hasierako ekitaldia bertan behera uztea erabaki duzue elkartean. Zergaitik?**

Jendea ez dagoelako jai egiteko. Egoera zein den kontzientziatzeko ere bai, baina alarmismo handirik barik. Sagardotegiak zabalik daude eta sagardoa egon badago.

**Zelako sagardoa dastatu ahal izango dugu?**

Egoerak sagardoaren ezaugarriak baldintzatzen ditu. Bero egiten badu, sagarrak berak ur gutxiago du eta kontzentratuagoa da. Gradu aldetik zeozer gehiago izango du. Dastamenari dagokionez, aurtengo sagardoa mingotsagoa da momentu honetan. Gero, fintzen joango da. Aurtur, fruta usain gutxiago izango du.

**Uxarten gaur zabalduko duzue denboraldia. Zer prestatu duzue?**

Etenaldi baten ondoren, 27 urtean izan dugun eskemara bueltatuko gara berriro. Funtzionatzen du eta

**Lehendik ere botilaren prezioa desfasatuta egon da. Elementu guztien prezio igoeragaz egoerak txarrera**

txarrera egin du. Eguneratzen ez bagara, egoera okertu egingo da. Bestela, ekoizpen gastuek lehena-goko irabazi txiki hori jan egingo digute.

**Bizkaiko Sagardogileen Elkarteko presidente legez, sektorean zein diagnostiko konpartitzen duzue?**

Bizkaiko sagardogileek lotura zuzena dute baserriko ekoizpenagaz.

ez goaz aldatzera. Txalapartagaz hasiko gara, Uxarteko atarian. Gero, trikitilariak eta bertsolariak egongo dira. Parranda polita egoten da, afari eder eta guzti. Bertan egon denak ondo gogoratuko du. Hemengo jaiak badu bere historia. Bertsolari asko pasatu dira hemendik.

#### **Uxarte baserria noiz bihurtu zen sagardotegi?**

Uxarte baserri tradizional bat da. 400 urte ditu, baina 200 urtetik hona badakigu nortzuek jardun duten hemen. Gure aitita-ama-mak eta aurreko belaunaldi batzuk dokumentatuta ditugu.

**Txalapartagaz hasiko gara Uxarteko atarian. Gero, trikitilariak eta bertsolariak egongo dira. Parranda polita egoten da afari eder eta guzti**

Denerik egiten zen: ganaduagaz, lurrak landu, basoan... Orain 30 urte baino gehiago, baserriari beste erabilpen batez segida ematea planteatu nuen. Autopis-

taren inguruan sakabanattuta gelditu diren lurretarako eta baserriako sagardotegiarena proposa zela iritzi genion. Sagardo sagarrak landatu nituen. Momentu honetan 5-6 hektarea lantzen ditugu.

#### **Prozesu osoa lantzen duzue.**

Bai, ekoizpena, sagardoa, bodega eta jantokia korta zegoen lekuan. Horregaz hasi ginen, ezagutzen ez genuen esparru batean. Geure erara egin genuen eta emaitzak hortxe daude. 27 urte daramatzagu sagardotegi legez funtzionatzen. Sagardotik aparte, sagar zukua ere egiten dugu.

#### **Orain dela 30 urte Bizkaian horrelako proiektu bat martxan ipini zenutenean, zer esaten zizueten?**

Praka berri asko ez genituela egingo esaten ziguten. Gainera, sagarrondoak landatzen hasi ginen sail batzuk basoak izandakoak ziren. Baina sagarraren ekoizpen aldetik badugu zer esan.

#### **Ibilbide luzea duzue. Zein balorazio egingo zenuke?**

Ona, baina nekeza da. Sakrifizio handia eginda. Proiektu honetan 6 lagun gabiltza lanean urte osoan. Enpresa txiki bat da. Gazte gaude, eta aurrera egiteko asmoagaz.



Uxartek 5-6 hektarea lantzen ditu.



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

Txikiak handi egiteko hezkuntza osoa

**ATEAK ZABALTZEKO EGUNA (0-16)**

Urtarrilaren 28an

11:00etan

**Familia osoa gonbidaturik dago!**

**2023-2024 matrikulazioa: otsailaren 13tik 24ra arte**

Eman izena Ikastola ezagutzeko!



☎ 946 73 29 50  
✉ [zonotza@ikastola.eus](mailto:zonotza@ikastola.eus)  
🌐 [www.andramarizornotzakoikastola.eus](http://www.andramarizornotzakoikastola.eus)



**DURANGO • JONE GUENETXEA**

**20 urte joan dira Gorbea taberna hartu zenuela. Zelan bururatu zitzaizun tabernari izatea?**

Fundizio batean lan finkoa nuen, baina han zikin asko dago eta berderatzi urte lanean egin nituenean osasunean igartzen hasi nintzen. Gaztea nintzela eta aldatu beharra nuela pentsatu nuen. Nire aurretik anaia batek zeraman taberna eta bertako lana ezagutzen nuen hartu aurretik.

**Ostalaritzan aritutakoa zinen?**

Asteburuetan estra legez lan egiten nuen. Asteazken zehar fundizioan, eta asteburuetan tabernetan lan egiten nuen, kostaldean zein lurretan.

**Aldaketa handia izango zen.**

Hainbeste urtean gauza bera egiten duzunean aldaketa handia da. Lan aldaketa igarri nuen gehien, baina gero tabernako lana ez zen berria izan.

**Lehenengo 15 urteak oso arin pasatu ziren.****Baina koronabirusaren momentua gogorra izan zen****Zelakoa izan da 20 urteko ibilbidea?**

Lehenengo 15 urteak oso arin pasatu ziren. Baina koronabirusaren momentua oso gogorra izan zen.

# “Pertsona asko tabernara bezero modura etortzen hasi ziren eta gaur egun lagunak dira”

Ritxar Beltranek 20 urte bete ditu Gorbea tabernan. Urteurrena ospatzeko, pintxoak banatuko dituzte zapatuan, egunean zehar. Fundiziotik tabernara joan zela hamarkada bi pasatu direla eta, egindako ibilbideagaz pozik dago abadiñarra

Ezjakintasun hori oso gogorra izan zen. Familia osoarengan pentsatu behar duzu.

**Beste 20 urte emateko sasoiak zaude?**

20 urte egin ditugu eta ea beste 20 ere egiten ditugun. Dena dela, ostalaritzan hamarkada bi astunak izan daitezke. Egutero ordu asko dira. Besteak ondo pasatzen ari direnean zu lanean zaude.

**Asko aldatu da ostalaritza Alde Zaharrea?**

Asko. Hasieran Alde Zaharra ez zen oinezkoentzat. Jendea kotxeagaz etortzen zen eta giro gehiago egoten zen. Peatonalizatu denetik asko bajatu da.

**Eta gauak?**

Ohiturak aldatu egin dira. Lehen, kanpotik ere etortzen zen jendea Durangora. Orain hemengoak beste leku batzuetara joaten dira: Bilbora, Eibarrera, Elgoibarrera... Giroa ere aldatu egin da. Lehen rockeroagoa zen. Nik neure modura jarraitzen dut. Giro euskalduna eta musika euskaldun eta rockeroa.

**Eta Athleticek ere badu bere lekua.**

Bai, jendea partidua ikustera etortzen da eta giro polita sortzen da.

**Jendeak protestatu egiten du prezioengaitik.**

Prezioetan ni neure kontura noa. Goienkaletik beti egoten da alde

apur bat. Merkatuaren arabera barik, bezeroaren arabera ipintzen ditut prezioak. Jendeak ez dauka soberan eta hobe da bezeroak mantentzea apur bat gutxiago irabazita.

**Urteurrena ospatzen zabilzate. Zer esango zenieke bezeroei?**

Urteotan pazientzia itzela izan dutela. Pertsona asko, tabernara bezero modura etortzen hasi ziren eta gaur egun lagunak dira. Jendea nigaz ondo portatu da, momentu onetan zein txarretan.



Andereak eta Gerediaga elkarteetako kideak udal agintariekin.

## Durangoko emakumeen kartzelan egondako presoak omenduko dituzte zapatuan

Ekitaldia egin eta plaka bat ipiniko dute kartzelan hil ziren 5 emakumeen eta 6 umeen izen-abizenekin. Omenaldia Neversen egingo dute, 13:00etan

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Milaka emakume presok erreprezio frankista gogorra jasan zuten Durangoko emakumeen kartzelan. 5 emakume eta 6 ume hil ziren bertan. Hori dela eta, Durangoko Udalak, elkarte feministek eta memoria historikoa lantzen duten eragileek omenaldi ekitaldi bat egingo dute zapatuan. Udalak "zor historiko bat" kitatu gura du horrela. Asteon prentsaurrean azaldu dutenez, ekitaldia egin eta

plaka bat ipiniko dute garai bateko kartzela egondako eremuan, Neversen, hildako biktimen izen-abizenekin. Ekitaldia 13:00etan hasiko da. Bertan, Durangoko elkarteek eta herritarrek parte hartuko dute; besteak beste, Maria Gorosari kazetari eta irakaslea, Leire Vargas idazlea eta Ixone Aroma dantzariak. Ondoa izango dituzte Durangoko eragile feministak eta memoria historikoa lantzen duten elkarteak. Andereak eta Gerediaga,

adibidez. Udal agintariak zapatuko aitortzaren garrantzia azpimarratu dute. "Herritarrek egutero-egutero pasatzen gara kartzela egon zen lekuaren ondotik. Garrantzitsu da aitortza", adierazi du Ima Garrastatxu alkateak. Julián Ríos alkateordeak ere antzerako berbak izan ditu. Emakumeen kartzela "ahantzuratik" ateratzeko deia egin du. Frankistek 1939tik 1940ra erabili zuten Durangoko emakumeen kartzela.

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2023ko urtarrilaren 20a  
21. urtea - 921. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Prestaketa lanetan harrapatu ditugu. Txiste batzuk sortzen, buruari buelta batzuk ematen. Baina argi dute helburua: bakarrizketak sortu, San Agustin kulturgunean bota eta ikusleak barre-algaraka ipintzea. Sarrera gutxi batzuk baino ez dira geratzen salgai. Arte eta Historia Museoa edo Kutxabanken eskuratu daitezke.

**Badoaz Gorka Madrazo eta Joana Ocaña kaletik, igo dira San Agustin kultur guneko eszenatokira, eta... zelan amaitzen da txistea?**

**Gorka Madrazo:** Eszenatokira igo eta bat-batean zuri geratzen dira biak! (barrez)

**Joana Ocaña:** Bai, eta irten baino lehenago egundoko kakalarria sartzen zaie bie! (barrez)

**Halakorik gertatu ez dadin, astebete duzue prestaketa lanetarako.**

**J.O.:** Nire ustez, bakarrizketa saioa zuzeneko Netflix saioa izango da. Neguak etxe-girora gonbidatzen gaitu, baina goazen telebistatik irten eta antzokiak betetzeko erronka horri heltzera.

**G.M.:** Inguruan ditugun gai, anekdota eta istorioak aintzat hartuta, giro herritarra sortzea da asmoa, geure buruaz barre egin eta inguruaz barre egitea. Bost bakarrizketa kontalari egongo gara.

**Barrea eragite horri gustua hartuta zaudetela dirudi. Gorka, zuretzat hirugarren edizioa izango da bakarrizketa kontalari lez. Joana, zuretzat, bigarrena.**

**G.M.:** Bai. Eta hau prestatzean halako kakalarri bat sortzen zaizu, ur-

# “Inguruko anekdotak hartuta, geure buruaz barre egin eta giro herritarra sortuko dugu”

Durangoko Euskal Herrian Euskarazek Bakarrizketen III. edizioa egingo du hilaren 27an. Gorka Madrazo eta Joana Ocaña San Agustineko oholtzara igo eta ikusleak barre-algaraka ipiniko dituzten kideetariko bi dira. Saioa 19:00etan izango da

duritasun bat. Baina, aldi berean, honek guzti honek motibaziotik eta morbotik ere badu asko.

**J.O.:** Gu biok antzerkitik gatoz, baina hau beste zeozer da. Hemen bakarrik zaude, zu zeu zeure hustasun horregaz. Kontakizuna egiterakoan maskara txiki-txiki-riren bat ipiniko duzu zeure burua babesteko, baina umoreak leher-tu egiten du antzerkian laugarren horma deitzen den hori. Ikuslea zure bakarrizketan txertatu dezakezu, bere erreakzioa jaso.

**Ekitaldia Euskal Herrian Euskarazek antolatu du. Euskaraz barre egiteko beharizana dugu?**

**G.M.:** Baietz esango nuke. Netflix, filmak, erdarazko bakarrizketak, *late night* erako telebista saioak...

Horiek denak etengabe irentsi ditugu, eta behar-beharrezkoa dugu horrelako ereduak euskaraz sortzea. Badaude umoregile euskaldunak, baina gutxi batzuk dira. Lehen, *Barre Librea* genuen ETBn, baina erretiratu egin zuten.

**J.O.:** Badaude antzerki konpainiak, umorezko obrak euskaraz egin eta errekonozimendu handia izatera ailegatzen direnak. Bestalde, euskalduna tontolapikoa den umore horretatik, klixe horreta-



tik, ihes egin behar dugulakoan nago.

**Umorea egitea gauza serioa ote da?**

**G.M.:** Zeure buruaz barre egiten duzunean, ikusleak enpatizatu egingo du zugaz. Baina badira gaiak, hirugarren pertsonenak,

kontu handiz landu beharrekoak. Nik gurago dut horietan ez sartu.

**J.O.:** Umoreak aurrez aurre esan ezin daitekeen hori esatea ahalbidetzen du. Baina umiltasunetik egin behar da, inozentzia moduko batetik.

**Bakarrizketa ez, baina elkarrizketa hau amaitu da. Amaierako txistea: "Oihala zabaldu eta bost bakarrizketa kontalari agertzen dira. Zarratu da oihala. Zelan deitzen da pelikula?"**

**J.O.:** Manolo! Zabaldu oihala! (barrez)

## 896 euro batu dituzte Garain, San Anton eguneko errematan

Baturiko diruaren erdia Caritasi emango diote



Elizabarri barruan egin zuten enkantea.

**GARAI • E.H.**

Argi dago garaitarrek elkar zirikatzeke abilezia badutena. Martitzenean San Anton eguneko enkantea egin zuten, eta bertara joandakoak hor ibili ziren, baserriko produktuak nork eskuratu, elkar zirikatzen. Azak, ardi-esnea, untzia, sargardoa, etxeko tostadak... denerik atera zuten enkantera. Eta kopuru bat hemen oihukatu, beste diru kopuru handiago bat han ozen esanda, halantxik ailegatu ziren 896 euro batzera. Iazko 820 euroak atzean utzi eta 896 batu dituzte aurten. Baturiko diruaren erdia Caritasi emango diote. Beste erdia parrokiarako gordeko dute.

San Anton eguneko erremata aspaldiko ohitura da Garain, herritarrek belaunaldirik belaunaldi gorde dutena. Lazaro Milikua garaitararen esanetan, "gutxienez 200 urte" dituen ohitura da. "Baina lehenagokoa ere izan daiteke, Elizabarri eraiki zenetik honakoa". Azken 16 urte hauetan lez, Milikuak gidatu zuen martitzeneko enkantea.

**Iurreta**  
Elezateko Udala

**TAXIA ESKURA**

TAXI  
AUZUNEA

2023ko otsailaren 1etik aurrera, Taxi-auzunea erabili nahi dutenek Udalak emandako erabiltzaile-txartel berria aurkeztu beharko diote taxilariari.

2023. urteko txartela eskatzeko epea:  
urtarrilaren 31ra bitartean

## Memaian eremu bat prestatu dute bertan zuhaitzak landatzeko urtarrilaren 29an

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Bertako basoak eta zuhaitzak sustatzeko asmoagaz, Elorrio-Atxondo Baso Biziak elkarteak zuhaitz landaketa antolatu du Elorrioko Udalaren babesagaz. Landaketa elkarlanean egingo dute, urtarrilaren 29an, Memaian. Horretarako, joan zen zapatuan, hilaren 14an, eremua prestatzen ibili ziren: zuhoak egiten eta eremua markatzen, besteak beste. Antolatzaileek urtarrilaren 29ko ekimenean parte

hartzeko gonbidapena egin diete herritarrei, eta aurrez izena eman beharko dela jakinarazi dute. Ekimenaren sustatzaileek bakoitzak bere aitzurra eraman dezan eskatu dute, eta arropa eta oinetako egokiak.

Landaketa Elorrioko Udalak erosi behar dituen lursailetan egingo dute. Guztira, 300 zuhaitz landatuko dituzte lursail horietan. Haritza landatuko dute batez ere; baita gaztainondoa eta urkia ere.



Hainbat lagun ibili zen eremua prestatzen.

## Sketchcrawl ekimenak dozenaka marrazkilari batuko ditu

Elorrioren egingo dute ekimena, Elorrioko Eskulangile Taldeak antolatuta eta udalak babestuta

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Kalera irten, gustuko txoko bat aukeratu eta hura marraztu, horixe egingo dute urtarrilaren 28an Elorrioren. Elorrioko Eskulan Taldeak antolatuta, dozenaka margolari batuko dira Elorrioren Sketchcrawl ekimenaren barruan.

Eskulan taldekoek egun osoko egitaraua antolatu dute urtarrilaren 28rako. 10:00etan emango diote hasiera egunari, plazan.


12:00etan, Alkartu elkartearen salda beroa hartuko dute eta bazkaltzera joan arte Kurutzia inguruan marrazten arituko dira. 14:30ean, Tanger tabernan bazkalduko dute eta 16:00etatik 18:00etara bitartean marrazten jarraituko dute. Antolatzaileek bertaratzeko deia egin diete herritarrei, eta aurrez izena ematea beharrezkoa dela jakinarazi dute. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 25a da.

## Datozen hiru asteetan, Elorrioko hainbat kaletako argiteria LEDera aldatuko dute

Proiektuak 139.469 euroko aurrekontua du; Aldunditik 56.000 euroko laguntza jasoko dute

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Datozen asteetan, Goieta, San Juan, Morgaondo, Txanberri, Aduetxeta, Nizeto Urkizu eta Padura kaleetako argiteria LED teknologiarara aldatuko dute. Udala 2018an hasi zen energia trantsizioaren erronkari heltzeko lanak egiten, eta ordutik 450 argi puntu baino gehiago aldatu dituzte. "Apurka-apurka argiteria publikoa LED teknologiarara egokitzen gabiltza, energiaren erabilera eraginkorragoa lortzeko",



Nizeto Urkizu kalea.

## 1960ko hamarkada amaierako sanblasak berbagai, 'Ateneo Ibiltariko' lehen saioan

**ABADIÑO • EKAITZ HERRERA**

Kafe baten bueltan jesarrita, garai bateko kontuei buruz paxadaz eta lagun artean berba egitea. Abadiñoko herritar talde batek ezaugarri horiek dituen egitasmoa ipini du martxan: *Ateneo Ibiltaria*. Lantzean behin herriko gaiei buruz berba egiteko batu gura dute, lagun artean tertulia egin eta bide batez memoria ariketa bat eginda. *Ateneo Ibiltaria*-k urtarrilaren 25ean egingo du bere lehenengo geldialdia. Abarketeruena tabernan batuko dira, 19:00etan, garai bateko San Blas jaiei buruz berba egiteko. Hain zuzen ere, 1960ko hamarkada amaierako sanblasak aletu gura dituzte, urte hartan protagonista izan ziren herritarren testigantzekin.

## Abadiñon diru laguntzak emango dituzte baserrietako tximiniak garbitzeko

**ABADIÑO • M.Z.**

Abadiñoko Udalak diru laguntzak emango ditu baserrietan tximiniak garbitzeko eta su-itxalgailuak ipintzeko. Baserrietako tximiniak ez garbitzeagaitik edo beste arrazoi batzuegatik gertatu daitezkeen suteak prebenitzea da laguntzaren helburua.

Tximinia garbitzeagaitik edo su-itxalgailu bat erosteagaitik onuradun bakoitzak jaso dezakeen zenbatekoa ordainduriko fakturaren kostu osoaren %90 izango da, gehienez ere 100 eurora arte, betiere eskatzailea Aldundiko nekazaritza-ustiatzaren erregistroan alta emanda badago. Bestelako kasuetan, laguntza %50ekoa izango da.

## Jubilatuen etxeko tabernako zerbitzua esleitu du Atxondoko Udalak

Tabernako zerbitzuaz gainera, ludotekakoa ere esleitu dute



Atxondoko jubilatuen etxeko taberna.

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Atxondoko Udalak 3.000 euroan esleitu du jubilatuen etxeko tabernako zerbitzua. Zerbitzua urte birako esleitu da eta beste urtebete luzatzeko aukera egongo da. "Udalak inbertsio handia egin du zerbitzua hobetzeko eta pozten gara espazio honek atek zabalduko dituelako berriro. Hilabete askotako lana izan da, baina, azkenean, merezi izan du", azpimarratu dute udal iturriek.

### Ludoteka zerbitzua

Jubilatuen etxeko tabernako zerbitzua esleitzeaz gainera, ludoteka zerbitzuaren kontratua ere esleitu dutela argitaratu du udalak. Kontratu hau zortzi hilabetetarako izango dela jakinarazi dute. Kontratu hori amaiturikoan, ludotekakoa eta Haurreskolako eraikina eraberritzea aurreikusita dago.

Ludoteka asteleheneetik barikura egongo da zabalik, 16:30etik 18:30era.



# Gremioen gida

**Zurgintza**

**leike** aroztegia & diseinua  
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



[www.leikearoztegia.com](http://www.leikearoztegia.com)  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf.: 94 681 72 29

**Iturgintza**

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA  
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862  
mallabiena@mallabiena.com

**Iturgintza**

**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208  
ubide@euskalnet.net  
48200 DURANGO 188 PK.

**Iturgintza**

**UNAI GARAY**  
ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

Instalatazile baimendua

659 673 790  
unaigaray@yahoo.es

**Zurgintza**

**ATERPE AROTZAK**  
EGUR ERAIKUNTZAK  
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65  
Ander Maiztegi 655 73 75 51  
[www.carpinteriaaterpe.com](http://www.carpinteriaaterpe.com)

**Dekorazioa**

**JAIO**barnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421  
info@jaiobarnizatuak.com  
[www.jaiobarnizatuak.com](http://www.jaiobarnizatuak.com)



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**



# Otxandioko nerabeei zuzenduriko aisialdi eskaintzak indarberrituta ekin dio ikasturteari

Txatxilipurdi elkarteko kideak nerabeekin batu dira euren kezka eta ideiak jasotzeko, eta hortik ekin diote aurtengo eskaintzari; inoiz baino nerabe gehiago dituztela eta orain arte "oso erantzun ona" jaso dutela adierazi dute

**OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO**

Txatxilipurdi elkarteak Otxandion antolatzen duen aisialdi eskaintzak indarberrituta hasi du ikasturteari; batez ere, nerabeei zuzenduriko saioei dagokienez. 12tik 16 urtera artekoen beharrianak asetzeko ahalegin berezia egiten dabilta.

Otxandioko eskolan Lehen Hezkuntza amaitu arte ikasten dute umeek; hau da, 12 urtera arte. Hortik aurrera, beste herri batzuetako ikastetxeetara joaten dira eta herritik kanporako hartu-emanak egiten dituzte. Egunerokotasun horretan, beste toki batzuetara mugitzen dira. "Horregaitik inportantea deritzogu herrian bertan aproposa den aisialdi zerbitzua eskaintzeari", azaldu du Txatxilipurdiko koordinatzaile Itsaso Garaik.

Nerabeengana heltzeko, "urteetan" lanean ibili direla azaldu du Garaik, baina aurten ahalegin berezia egiten dabiltzala. Gaztetxoekin batu dira. "Eurei entzutea izan da bidea. Euren nahiak eta beharrianak jaso eta horiek kontuan hartu ditugu", dio Garaik.

Batzeko espazio atsegin bat falta zitzaiela zen nerabeen eskaeratariko bat, Gazte Txoko moduko bat. Andresa Landako gela "hotza" egiten zitzaien. Gaztetxean aurkitu dute behar zutena. Hango gela ba-



Otxandioko nerabeak Txatxilipurdiren irteera batean.

**Indarberritutako aisialdi eskaintzari eskerrak, parte hartzen duen nerabe kopurua 10etik 23ra hazi da**

tek futbolina, sofak, eszenatokia... ditu eta Gazte Txoko batera gehiago gerturatzen da. Barikuro batzen dira han eta askotariko ekintzak egiten dituzte.

Hilean behin herritik kanporako irteerak egiten dituzte. Iazko abenduan Bilboko Gabonetako Haur Parkera joan ziren eta laster Gasteizko izotz pistan ibiliko dira. Kasu honetan ere nerabeen

nahiak entzun dituzte. Orain arte egindakoa egokitzen jotzen dute. Aisialdian parte hartzen duten nerabeen kopurua 10etik 23ra hazi da. "Gazte guztiak ekintza denetara joan dira eta oso ondo pasatu dute", dio Garaik.

12 urtetik beherako umeen kasuan, Txatxilipurdiko eskaintza arrakastatsua da: 136 ume dituzte.

## Mallabian xake kurtsoa hasiko dute Superigandea ekimenaren barruan

**MALLABIA • J.D.**

Mallabia kirol elkartearen Superigandea ekimena Mallabiko aisialdi eskaintzaren parte izango da aurten ere. Domeka honean bigarren saioa egingo dute eskolako gimnasioan. Hainbat joko egingo dute, 11:00etatik 13:00etara: oztopo proba eta zaku lasterketa, besteak beste. Bertaratzen diren hurrek hamaiketako jateko aukera ere izango dute.

**Goizean jokoak egongo dira eskolan, eta arratsaldean xake kurtsoa Kontzejuzarrean**

Arratsaldean, Kontzejuzarrean jarraituko du gaztetxoentzako eskaintzak. 16:00etan, ikus-entzunezko bat eskainiko dute eta bingoan arituko dira. Irabazleek opariak jasoko dituzte. Ondoren, xake kurtsoa hasiko da. Iaz domino jokoaren kurtsoagaz eta joko horren txapelketa batezaz amaitu zuten urtea, eta, ekimen arrakastatsua izan zenez —25 ume aritu ziren—, aurten kurtso gehiago eskaintzeko asmoa dute. Xake saioek iaz ere harrera ona izan zutela dio ekimeneko sustatzailea den Juan Carlos Perezek.

## Umeentzako antzezlan musikatua ikusgai Izurtzan, urtarrilaren 27an

Ipuin musikatuaren bitartez, Naita Produksioak taldeko kideek hemengo eta kanpoko kulturak Izurtzara gerturako dituzte datorren barikuan; sarrera doakoa izango da

**IZURTZA • J.D.**

Izurtzako Udalak familia giroan gozatzeko antzezlan antolatuta du urtarrilaren 27rako. 18:00etan izango da, erabilera anitzeko lokalean. 5etik 10 urtera arteko umei zuzenduta dago eta sarrera doakoa da. Ipuin musikatuarekin, Nerea Ariznabarretak eta Mariano Hurtadok (Naita Produksioak) munduko kulturak ezagutzeko aukera eskainiko dute Bertoko eta urrutiko ipuinak ikuskizunean. "Maitasunaren, konfiantzaren eta biziraupenaren gai unibertsalez arituko gara kultura ezberdinen begiradapean; sioux indiarrak, tunisiarrak eta euskal herritarrak gehiago ezagututa", azaldu dute Naitako kideek.



Hurtado eta Ariznabarreta 'Bertoko eta urrutiko ipuinak' ikuskizunean. **NAITA PRODUKSIOAK**

## 80 bat lagunek bertoko 716 zuhaitz landatu dituzte Mañariko baso batean

Elorri, gorosti eta urki landareak landatu zituzten,

**MAÑARIA • J.D.**

Joan zen domekan, bertoko zuhaitzak landatu zituzten Mañariko lursail batean auzolanean. Egun euritsua eginagaitik ere, ekimenak 80 bat lagun batu zituen. 10-15 bat zuhaitz espeziatiko 716

landara landatu zituzten: hainbat aritz mota, elorri zuria, elorri beltza, gorostia eta urkia, besteak beste. Aurrerago, urtean zehar, egitasmoaren ardura duen Lurgaiak zuhaitz gehiago landatuko du lur sail horretan.



Herritarrak zuhaitzak landatzen Mañariko Udalak 2021ean erositako lursailen.





# Ostalaritza gida



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**

 **Abadiño**



**ABARKETERUENA**  
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO  
**Tel.: 944 657 790**

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

 **Zornotza**



**XIBERU**  
Zezilia Gallartzagoitia, 9  
**Tel.: 946181758**

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 **Durango**



**MIKELDI TABERNA**  
Kalebarria, 7 - DURANGO  
**Tel.: 944 073 988**

Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.

 **Iurreta**



**GAUARGI**  
Dantzari 4 behea, IURRETA  
**Tel.: 944 356 674**

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

 **Durango**



**AI AMA**  
Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO  
**Tel.: 946 232 240**

Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!



**anboto**  
kide

Anbotokideen  
txokoa

## URTARRILEKO ZOZKETAK



**Amaraun** ikuskizunerako sarrera bikoitz bat. San Agustin kulturgunean urtarrilaren 26an.

\*Eman izena gure webgunean.



**Lehendakari gaia** antzerkirako sarrera bikoitza. Arriola antzokian urtarrilaren 27an.

\*Eman izena gure webgunean.

## IRABAZLEAK

**Iratxoek kantu sekretua:**

Zigor Zuazua Adame


**Kelonia eta Itsasoa:**

Pello Campo Onandia

## Okm:

batzen gaituen  
distantzia

Egin zaitetz Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



## Zaldibarko zabortegian gertaturiko hondamendia gogoratuko dute Eitzagan, otsailaren 5ean

Luizia gertatu zela hiru urte betetzen diren egunean Zaldibar Argituk ekitaldian parte hartzera deitu du

**ZALDIBAR • JONE GUENETXEA**

Hiru urte beteko dira Zaldibarko Eitzaga auzoko hondakindegian lur-jausia gertatu zenetik. 2020ko otsailaren 6an, Verter Recycling hondakindegiko lur-jausiaren ondorioz, Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze beharginak

lurperatuta geratu ziren. Sei hilabeteko bilaketaren ondoren, abuztuan Sololuzeren gorpuzkiak agertu ziren; ez zuten Beltranen arrastorik aurkitu. Era berean, prozesu judiziala martxan ipini zen erantzukizunak argitzeko. Auzibide bi zabaldu



Zaldibar Argitu plataformaren mobilizazioa.

## Berrizko Udalak komun publiko bat ipiniko du Berrizjauregiko lorategian

Berrizjauregiko lorategi botaniko-historikoan ipiniko dute komuna; otsailaren 10era arte iraungo du lizitazioak



Lorategi botaniko-historikoan ipiniko dute komuna.

zituzten Durangoko lehen instrukzioeko epaitegian.

**Otsailaren 5eko ekitaldia**

Zaldibar Argituk Eitzaga auzoan deituriko ekitaldia 12:30ean hasiko da. Txalapartariak, dantzariak eta Lucio Alonso abeslariak parte hartuko dute. Luizian hildako beharginak gogora ekarriko dituztela azpimarratu dute plataformako kideek. "Gure mobilizazioak hiru ardatzetan oinarritzen dira hasieratik: langileak, osasuna eta erantzukizunak. Enpresaren erantzukizunak ez daude zalantzan, baina Eusko Jaurlaritzarenak argitzeko eskatzen jarraitzen dugu", azaldu du Gaizka Zabarte plataformako kideak. Ekitaldiak Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren babesa izango du.

**BERRIZ • A. M.**

Berrizjauregiko lorategi botaniko-historikoan komun publiko automatiko bat ipiniko dute, udaltxearen inguruko zelaian. Lanek 76.500 euroko aurrekontua dute eta lizitate prozesuan daude une honetan. Otsailaren 10era arte iraungo du lizitate prozesuak, eta hiru hilabeteko gauzatze-epaia edukiko du. Komunak garbitzeko eta desinfektatzeko sistema automatizatua izango du, eta mugikortasun urriko pertsonentzat egokitua izango da. Irisgarritasun neurriak beteko dituztela azaldu dute ohar baten bitartez.

**Kontulekuen datak**

Bestalde, haur literatura bultzatzeko Berrizko Kontulekuak programaren data berriak iragarri ditu Berrizko Udalak. Urtarrilaren 25ean, otsailaren 22an, martxoaren 30ean eta apirilaren 26an izango dira saioak, eta Amaia Egidazu idazle eta ilustratzaileak emango ditu saioak. Izena emateko, [liburutegi@berriz.eus](mailto:liburutegi@berriz.eus) helbidera idatzi beharko da.

## "Borrokan jarraitzeko mila arrazoi" dituztela eta, pentsiodunek kalean jarraituko dute

**DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA**

Bost urte joan dira pentsiodunek kalera irten eta astelehenero-astelehenero mobilizatzeari ekin ziotenetik. Egunotan, bide osoan zehar "lorturikoa ospatzen" ibili dira. "Pentsioen Sistema Publikoa guztiz bideragarria dela erakustea, Iraunkortasun Faktorea indargabetzea eta pentsioak erdira murriztu gura izateko erabakiak saihestea" lortu dutela azpimarratu dute. De-

na dela, aurrera begira "borrokan jarraitzeko mila arrazoi" dituztela eta, kalea hartzen jarraituko dutela iragarri dute. "Osasunerako eskubidea, energia krisialdia eta finantza-oligopolioen mozkin errekorak" aipatu dituzte borrokatu beharreko arrazoiak. Euren berbetan, "onartezina" delako geroago eta pentsiodun gehiagok uko egin behar izatea oinarrizko premiak asetzeari, hala nola etxe osoak,

osasunerako eskubidea, elikadura osasuntsua eta erretiroaren ondoren diru-sarrera duin eta nahikoak bermatzea.

Durangoko eta Iurretako hainbat pentsiodun Durangoko udal plazan batu ziren astelehenean. Bosgarren urteurrena luntx bat eginez ospatu zuten. Kristina Mardarasek bertsoan egin zuen eta Juanan Aromak txistua jota girotu zuen goiza.



Durangoko eta Iurretako pentsiodunek Durangoko udal plazan ospatu zuten bosgarren urteurrena, astelehenean.



Joan zen asteburuan egindako aurkezpena.

## Independentzia Eguna egingo dute apirilaren 22an

"Nazio pultsuaren beherakadaren aurrean, independentziaren beharra" aldarrikatuko dute

**ZORNOTZA • E.H.**

Zornotzako eragile independentistek Independentzia Eguna antolatu dute apirilaren 22rako. Euskal estatu "zabal, anitz eta justuago bat lortzeko" planteamendua da eratu dutena. Antolatzaileen esanetan, Euskal Herriari dagozkion "ebazpenik garrantzitsuenak hemendik kanpora" hartzen dira. Adibidez, "jendartearen babese-

rako sistema, pentsioak, lan hartu-emanak, hezkuntza eta hizkuntza politikak eta migrazio politikak". Hori dela eta, "independentzia eraldatzailea" ipini dute "justizia soziala ardatz duen ongizate estatu berri bat" lortzeko proiektu modura. Eskoziako eta Kataluniako mugimenduak ipini dituzte adibide bezala. Apirilaren 22rako "egitarau zabal bat" prestatuko dute.

## Iurretako Bakixa auzoan danbor hotsa entzungo da berriro, hiru urteren ondoren

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Bakixa auzoan San Sebastian jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Horrez gainera, Bakixako Tanborra Mundiala berreskuratuko dute gaur gauerdian, hiru urteren ondoren. Zapatuan, San Sebastian egunean, Danborrada Txikia irten go da, 17:00etan. Gero, jokoak eta tailerrak egongo dira. Eta Mozorro Eguna ere ospatuko dute.

Gaur Insönniak joko du bertan. Bihar, bestalde, txakurren agilitate-a, herri kirolak eta tortilla txapelketa egongo dira; eta etzi, kantu bazkaria. Egitarau osoa agendan.



Duela hiru urte Bakixan egindako tanborradaren irudi bat.

## Iurretako kale garbiketa zerbitzua indartuko dute

Udalak saneamendu sarearen mantentze-lanak ere hobetuko ditu; urtean 311.000 euro ipiniko dituzte

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Kaleko garbiketa zerbitzua eta saneamendu sarearen mantentze-lanak indartzeko, Iurretako Udalak lau urteko kontratu berria (zortzi urtera luzagarria) lizitatutako du. Urtean 311.000 euro ipiniko dituzte zerbitzu berri horretarako, eta apirilean hasia aurreikusiko dute.

Zerbitzua "nabarmen" hobetuko dela diote udal ordezkariak.

Izan ere, lanaldi osoko langile bi barik hiru egongo dira, eta aparteko egoeretan errefortzu handiagoa egongo da. Bestalde, zerbitzua-ren makineria guztia berrituko dute. Gainera, espaloiak eta galtzadak garbitzeko makina berria ipiniko dute. Garbiketa sarriago egingo da eta aparteko garbiketarako ere aurreikusiko dituzte. Kontratua berritzea eta zabaltzea beharrezkoa ikusi dute.

bertako  
igogailuak | ascensores

**-REKIN BAI!**

**DROTARIKO ZERBITZUA**  
**100€-tik/hileko**

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



**BIZKAIA**  
946 523 935  
**GIPUZKOA**  
943 903 450  
**ARABA**  
945 712 822  
**NAFARROA**  
848 870 917

[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus)

# Urteko lehenengo elurtea asteon Durangaldean

Eguazten goizean elurtuta esnatu zen Durangaldea. Herritarrek hainbat argazki bidali zuten 'anboto.org'-ra

**DURANGALDEA** • MAIALEN ZUAZUBISKAR Bete dira iragarpenak eta lehenengo elurtea heldu da. Aste hasieran eskualdeko mendi tontorrek zuritu zituen elurrak, eta eguazten goizean elurrak zurituta esnatu ziren Durangaldeko herriak.

Elurrak irudi ikusgarriak utzi ditu eta horren adibide dira asteon Eneko Romero durangarrak *anboto*.

*org*-ra bidalitako bideoa, Urkiolagiren ateratakoa, eta beste hainbat herritarrek bidalitako argazkiak.

Bestalde, elurrak herritarren egunerokoa baldintzatu zuen. Kanpazar ibilgailuentzat itxita egon zen eta Areition kateak behar ziren. Horrez gainera, gainerako mendateetan ere arretaz gidatzeko gomendatu zuten.



Momoiotik ateratako argazkia.

## Politikan

Neskutz Rodriguez  
Ormazabal  
Herriaren Eskubidea



### Güeñeovejuna

"Garai nahasiak dira. Eskrupulurik gabeko enpresariak, erakundeen konplizitatearekin, KEMARAN jarri dute martxan, oso kutsakorra den biomasa errausteko planta bat Gueñeovejuna herriaren erdian. Herritarrek Aliantza sortu dute euren osasunaren defentsan antolatzeko".

Horrela hasten da *Güeñeovejuna*, artista amateurrek idatzi eta protagonizatutako antzez-lana. Zallako udal antzokian gozatzeko aukera izan nuen benetako gertakarietan oinarrituta dagoen istorio hau. Obra honek 2016an Gueñes Bizia auzo-plataforma sortu zuten pertsonen esperientzia kontatzen du, etxebizitzetatik metro gutxira biomasa errausteko planta bat ezartzearen aurka borrokatzeko.

Antzelan honekin eta udal antzokian oholtzaratzearekin bi ondorio atera ditzakegu:

- Lehenengoa obrarekin barerekin ikusten dugu, asoziazionismoak aldaketa sozial eta politikoak sustatzeko bultzada gisa duen garrantzia erakusten digulako. Gainera, tresna politiko independentea osa dezakete, administrazio publikoetan hartzen diren erabakietan are modu aktiboagoan parte hartzeko.

- Eta bigarrena, udal antzokietatik maila ez-profesionalen kulturari ematen zaion babesak duen garrantziagatik. Kasu honetan Zallako antzokia izan da, baina Durangon, San Agustinen, antzetzuteke, 25 urte hauetan erakutsi baitugu tokiko arte eszenikoen konpainien eta konpainia amateurren aldeko apustu eta babes sendoa egiten duela.

Batek daki! Agian egunen batean "Güeñeovejuna" ikusi ahal izango dugu San Agustinen.

## Durangaldea asteon

### Elorrioko autokarabana guneak Bizkaiko eremurik onenaren zigilua lortu du


**ELORRIO** | Elorrioko autokarabana gunea Bizkaiko gunerik onena izendatu du *areascamper.com* webguneak. Balorazioa egiterakoan, kokapena, guneko itzala eta argitasuna, zoruaren egoera, bertan dagoen lasaitasuna, plaza kopurua eta argindarra eta ura izateko aukera hartu dituzte kontuan.

### Zornotza Udalak 187.000 euro ipiniko ditu herrian komun publiko bi egiteko

**ZORNOTZA** | Zornotzan komun publiko bi ipiniko dituzte. Gure Kirolak gunean ipiniko dute bat, eta Zubietako bidegorrian bestea, Tolsan inguruan. Zornotzako Udalak 187.000 euroko aurrekontua erabiliko du azpiegitura bietarako.

### Otsailaren 15era arte aukera Ourdaybiko Mendi Film Lehiaketan parte hartzeko

**DURANGO** | Ourdaybik Mendi Film Laburren Lehiaketa antolatu du. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, filmak mendiko edozein gairen ingurukoak izan daitezke eta gehienez zazpi minutuko iraupena izan beharko dute. Lanak otsailaren 15a baino lehenago bidali beharko dira, *ourdaybi.mendifilm@gmail.com* helbidera. Filmak Ourdaybiko inaugurazioan proiektatuko dira.



### Durangoko Andra Mariko elizpea birmoldatzen hasi dira

**DURANGO** | Durangoko Udala Andra Mariko elizpea konpontzen hasi da. Arkupea konpontzeko lanak egingo ditu gehienbat. Hori dela eta, zeramikazko teilak kendu beharko dituzte. Horrez gainera, elizpearen bueltan aldamia ipiniko dute bide publikora ezer jaustea saihesteko. Eta barrualdean ere beste aldamia bat ipiniko dute, egurrezko arkuetan konponketa lanak egin ditzaten. Lanak fase bitan egingo dituzte eta zortzi bat hilabete iraungo dute. Udalak 620.824 euroko inbertsioa egingo du lan hauetarako.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

**AgroPaper®**  
NEKAZARITZA  
JASANGARRI BATERAKO  
NEGUTEGIA



**Smurfit Kappa**



# LABIRINTOIA

Labirinto honetan egin bidea jostailuei jarraituz.





# KOKATU MAPAN

Kokatu mapan alboan dauden animaliak. Pista batzuk mapan dituzu.





## "Mierda de ciudad"

ANTZERKIA **Berriz** :: Urtarrilak 21

### Olatz Gorrotxategiren 'Mierda de Ciudad', ikusteko aukera Berrizen

Hiru pertsona 80ko hamarkadan hasi zen istorioa kontatzen, gaur eta hemen ikuslearen aurrean amaitzen den istorioa. Horixe du abiapuntu Olatz Gorrotxategik zuzenduriko Mierda de Ciudad obrak. Porrotari buruzko obra da, Gorrotxategiren berbetan. "Kolonoen karabanak, hasteko leku hobe baten bila. Bere lekua bilatzen duen belaunaldi bat. Punka heldu da. Duelua. Westernaren isiltasun existentziala". Hori gutzia islatzeko igoko

dira Berrizko Kultur Etxeko oholtzara Aritza Rodríguez, Olatz Gorrotxategi eta Marta Álvarez del Valle, zapatuan, 19:00etan.

"Sioux indiarrak euskal folklorea defendatzen. 'Se busca' dioen kartel bat. *Saloon* baten desalojoa. Beste okupazio bat. Clint Eastwoodek dio ez duela soldaduskara joan gura". Hori gutzia eta gehiago ditu hizpide Olatz Gorrotxategik sorturiko *Mierda de Ciudad* antzezlanak.

## Urtarrilaren 20an

### DURANGO ikuskizuna

**Hirukoa Galaren IV. edizioa (Berbaro elkartea)**, 19:30ean, Plateruena kafe antzokian.

### ELORRIO musika

**-Gailu + Otoi**, 22:30ean, Ateneoan.

### IURRETA antzerkia

**'Porque me oprime el corsé' (Federación Teatro Besarkada-Luna Llena)**, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

### IURRETA sarsebastianak

**Meza**, 12:00etan, Bakixan.  
**Maiztegi herri eskolako dantza taldea**, 17:30ean. Ondoren, **jolasak eta tailerrak**.  
**Igel txapelketa**, 19:00etan.  
**Mus arina**, 19:30ean.  
**Insömnia**, 22:00etan.  
**Bakixako VII. Tanborrada Mundiala**, gauerdian.

## Urtarrilaren 21ean

### BERRIZ ipuinak

**'Mundu misteriotsua' (May Gorostiaga)**, 12:15ean, Berrizko Kultur Etxean.

### BERRIZ sanantonak

**2023 Urrezko Aizkora Binakako Txapelketa**, 12:00etan. Julen Alberdi 'Txikia IV.a' - Ioritz Gisasola 'Zelai IV.a' eta Ibai Soroa - Eneko Saralegi. **Harrijasotzerik azkarrenaren txapelketa**: Iñigo Eizagirre 'Eiza'

eta Hodei Iurrettagoiena 'Zeta IV.a'. **Karmele Gisasola 'Zelai III.a'-ren harrijasotze erakustaldia**.

### DURANGO dantza

**'Sintoniak'**, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

### DURANGO dantza

**Dantzaldia Patxi Monterogaz**, 18:00etan, Plateruenean.

### ELORRIO musika

**Kosmai Kosin**, 23:30ean, Portalekua tabernan.

### IURRETA sarsebastianak

**Txakurren Agility-a**, 12:00etan, Bakixan.  
**Herri kirol erakustaldia**, 13:30ean: Urdax Magunazelaia.  
**Tanborrada txikia**, 17:00etan. Ondoren, **jolasak eta tailerrak**.  
**Tortilla txapelketa**, 20:30ean.  
**Iratzar taldea**, 22:30ean.

### ZORNOTZA ikuskizuna

**'Iratxoaren kantu sekretuak'**, 17:30ean, Zornotza Aretoan.

## Urtarrilaren 22an

### DURANGO antzerkia

**'Uniko (Teatro Paraíso)**, 18:00etan, San Agustinen.

### ELORRIO antzerkia

**'Kelsonia eta Itsasoa' (Teatro Gorakada)**, 17:00etan, Arriola antzokian.

### IURRETA sarsebastianak

**Iurretako Koruak abestutako meza**, 12:00etan, Bakixan.  
**Mikel Deuna dantza taldea. Kantu bazkaria Eingok alaituta**, 14:00etan (txartelak Bodegillan).

## Urtarrilaren 24an

### IURRETA zinekluba

**'Errementari'**, 18:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Joxan Ormazabalen Esker Ondeko Jardunaldien barruan.

## Urtarrilaren 25ean

### ABADIÑO berbaldia

**Ateneo Ibiltaria: '60ko hamarkadaren amaierako San Blas Jaiak'**, 19:00etan, Abarketeruena tabernan.

### ELORRIO berbaldia

**'Gizarte mugimenduak eta herritarren parte-hartzea erakundeetan'**, 19:00etan, Iturri kultur etxean. Elorrioko Auzo Koordinakundeak antolatuta.

### IURRETA berbaldia

**'Bakardade zuria' (Hizlaria: Leire Urretxo eta Nerea Iztueta)**, 19:00etan, Goiuria Kultur Gunean. Iurretako VI. Mendi Astearren barruan.

## Urtarrilaren 26an

### IURRETA berbaldia

**'Egun on Capitan' (Hizlariak: Maite Zumarraga eta Idoia Rubial)**, 19:00etan, Goiuria Kultur Gunean. Iurretako VI. Mendi Astearren barruan.

### DURANGO dantza

**'Amarauñ' (Oihana Iguaran eta Amañur Luluaga)**, 19:00etan San Agustin kulturgunean.

## Urtarrilaren 27an

### BERRIZ antzerkia

**'Arrainak bihotzean' (Mar Mar Teatro)**, 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

### DURANGO bakarrizketak

**'Ba Kar (kar) izketak'**, 21:30ean San Agustin kulturgunean.

### ELORRIO antzerkia

**'Lehendakari Gaia' (Txalo Produzioak)**, 20:00etan, Arriola antzokian.

### IURRETA ipuin kontaketa

**'Para ponerse colorada: cuentos eróticos de la tradición oral' (Virginia Imaz)**, 19:00etan, herri bibliotekan.

### ZORNOTZA antzerkia

**'Búho' (Titzina Teatro)**, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

## Zinema

### :: Berriz KULTUR ETXEAN

• **Inspector Sun**  
barikua 20: 17:00  
domeka 22: 17:00

### :: Durango ZUGAZA ZINEMA

• **Babylon**  
barikua 20: 19:30  
zapatua 21: 16:45/19:30  
domeka 22: 16:45/19:30  
astelehena 23: 18:30  
martitena 24: 19:00  
eguztana 25: 19:00

### • Decisión to leave

barikua 20: 19:30  
zapatua 21: 19:30  
domeka 22: 19:30  
astelehena 23: 18:30  
martitena 24: 19:00

### • Emily

barikua 20: 20:30  
zapatua 21: 20:15  
domeka 22: 20:15  
astelehena 23: 18:30  
martitena 24: 19:00

### • El asombroso Mauricio

barikua 20: 18:30  
zapatua 21: 17:15  
domeka 22: 17:15

### • El gato con botas: el último deseo

zapatua 21: 16:45  
domeka 22: 16:45

### • Queso de cabra y té con sal

eguztana 25: 19:00

### • Halka

eguztana 25: 19:00

### :: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• **Utama**  
zapatua 21: 20:00  
domeka 22: 20:00  
astelehena 23: 20:00

### :: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• **Al descubierto**  
barikua 20: 20:00  
domeka 22: 20:00  
astelehena 23: 20:15

• **Rabbit Academy: pazko arrautzen lapurreta handia**  
domeka 22: 17:00

• **Eo (j.b.)**  
martitena 24: 20:15



**Athletic Club**




**Vs**



**Cádiz CF**

## Athleticen eta Cádizen arteko partidarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan



Athleticen eta Espanyolen  
arteko partidarako sarreren  
irabazlea:

**Irantzu Zabala**

Athleticen eta Real Madriren arteko  
partidarako sarreren irabazlea:

**Kepa Gorordo**

Atheticek San Mamesen jokatu dituen Ligako eta Kopako partida guztietako sarrera bikoitz bana (palkokoa) zozkatuko du ANBOTOk hemendik aurrera.

Oraindik Anbotokide ez bazara, ez galdu zozketa hauetan eta ANBOTOk egiten dituen gainerakoetan parte hartzeko aukera eta egin zaitez Anbotokide!

Zozketan parte hartzeko azken eguna: urtarrilaren 30a.

**Okm:**  
*batzen gaituen  
distantzia*

Egin zaitez Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



**anboto  
kide**



'Sintoniak'. GEMA ARRUGAETA

## Hotzikarak konpainiak ikuslezes beteriko San Agustin kulturgunean aurkeztuko du 'Sintoniak'

Hotzikara dantza taldeak zapatuan estreinatuko du 'Sintoniak' emanaldia, 19:00etan; sarrera guztiak salduta daude

### DANTZA • ARITZ MALDONADO

Mende laurdeneko jardunean, askotariko artistek zapaldu dute San Agustin kulturgunea; urrutetik etorritakoek zein etxekoek izan dute aterpe. Asteburu honetan, bigarrenen txanda izango da. Hain zuzen ere, Durangaldeko hainbat kidek sortu duten Hotzikara dantza taldeak zapatuan estreinatuko du *Sintoniak*, azken urte bietan ondu duen ikuskizuna. Itsasoa oinarri hartuta, bidaia bat proposatuko diote ikusleari, eta bertan dantza garaikidea, folklorea eta balleta nahastu dituzte. "Sekulako ibilbidea egin dugu prozesu honetan zehar hona heltzeko; teknika desberdinak nahastu ditugu, musika eta erritmo desberdinekin, adin desberdinetako neska-mutil eta gizon-emakumeekin", esan dute taldekoek. Carlos Friasek idatzi du obra, eta berea da zuzendaritza artistikoa ere. Koreografiak Inalvis Echevarriak landu ditu; Echevarria dantza irakaslea da. Kubatarrak dira biak sortzez, eta lan honetan elkar ezagutu dute.

### Urteetako prozesua

Ekitaldi batean du abiapuntua proiektu honek. Inalvis Echevarriak koreografia bat aurkeztu

zuen, eta bertan zegoen Carlos Frías. "Ikusi nuen bazegoela mami bat hor, bazutela zer kontatu", azpimarratu du Friasek. Orain lau bat urte izan zen hori. Ondoren, *Sintoniak* izango zena idazteari ekin zion Durangon bizi den kubatarrak. "Ideia pentsatu nuen, eta ondoren errekreazio guztia, musika eta diseinuak". Horrelako obra bat idazten duen lehenengo aldia da Friasena, aurretik ikuskizunaren eta kabaretaren munduan aritua den arren. "Atzetik istorio bat izan arren, desberdina izan da obra honen idazketa", azaldu du.

Prozesua artistentzat ere bidaia izan dela azpimarratu du Josu Belar dantzariak: "Oso prozesu aberasgarria izan da dantzari lez. Euskal dantzetan hasi nuen nire hartu-eman dantzagaz; gero etorri dira dantza garaikidea eta balleta. *Sintoniak*egaz jolasten ikasi dut, esperimentatzen. Musika eta dantza unibertsalak direla ikasi dut, eta jolasa integratu dut bietan". Hamalau lagunek dantza egingo dute San Agustinen, Echevarriak eta Belarrek barne: Aina Aromak, Ane Gerrikagoitiak, Elene Lejonak, Enara Barrutietak, Eneritz Bilbaok, Iñigo Canok, Javier Gomezek, Jon Sarobek, Jone

Gutierrezek, Maialen Outeiralek, Mikel Aitor Sarobek eta Mikel Elexpek. "Obra idatzi eta geroko moldaketetan, beti izan ditut

dantzariak gogoan, pertsona bakoitza momentu batean irudikatzen nuen. Talde amateurra izan daiteke, baina lan profesio-

nala egin dugu, guztiz. Urte bian, asteburuero, lau orduko saioak egin ditugu. Eztabaida egon daiteke profesionaltasunari buruz, orokorrean zer den, baina nire ustetan, taula gainera igo eta ordubetez publikoa emozionatzen ahalegintzen den pertsona oro da artista, tartean dirua egon zein ez", azpimarratu du Friasek. Horri lotuta, sortze prozesuan Zirkin

### Zapatuko estreinaldiaren ondoren, 'Sintoniak' beste areto batzuetan eskaintzea da taldearen helburua

gimnasioak eta San Agustin kulturguneak izandako garrantzia nabarmendu dute: "Euren laguntzarik barik ezinezkoa litzateke hau aurkeztu ahal izatea".

### Emanaldiak lotzen

San Agustin kulturguneko aretoa jendez lepo dutela egingo du debuta Hotzikara konpainiak, izan ere ez da sarrerarik geratzen zapatuko emanaldirako. Aurrera begira, baina, jarraipena izatea gura dute, eta, horretarako, emanaldiak lotu guran dabilta taldekideak. "Gustatuko litzaziguke Durangon bertan beste emanaldiren bat egin ahal izatea", azaldu du Belarrek. Ildo beretik jarraitu du Friasek: "Lan handia egin dugu eta lanean gabiltza beste emanaldi batzuk lotzen. Aukerak daudela esan digute". Hainbeste ordu eskaini dioten proiektua ahalik eta jenderik gehienari erakusten ahaleginduko dira, beraz.

## Egitarau bereziagaz ospatu gura dute San Agustin kulturgunearen 25. urteurrena

Durango San Agustin kulturguneak 1998an zabaldu zituen ateak. Hori ospatzeko, egitarau berezia prestatu dute datozen hiletarako. Besteak beste, Jose Sacristán, Charo López, Rafael Álvarez 'El brujo', Vanessa Goikoetxea eta

Igor Elortza igoko dira taula gainera. Baita Ane Gabarain, Iñaki Salvador eta Ander Lipus ere. "Egoera normal batean formatu teknikoagaitik eta aurrekontuagaitik San Agustinen lekuri izango ez luketen hamar obra ekarriko ditugu.

Orain, urteurren honen harira, hemen izango ditugu, gure etxeetatik pauso batera", azaldu du Arantza Arrazola koordinatzaileak. Elortzak *Anonyme Popularr* bertso eta musika ikuskizuna egingo du Rafa Ruedagaz batera.



Dantza, antzerkia eta umorea uztartu zituzten aurkezpen galan. TXELU ANGOITIA



Maidier López eta Nerea Ariznabarreta.

## Gorakadak adiskidetasunari eta biziraupenari buruzko istorioa dakar

Domekan estreinatuko du Gorakadak 'Kelsonia eta itsasoa' lan berria, Elorrioko Arriolan

**ANTZERKIA** • A. M.

Dortoka txiki bat da *Kelsonia eta itsasoa* antzezlaneko protagonista. Hondartzan jaio ostean, hirian murgilduko da, itsasora joan beharrean. "Istorio xamur eta dibertigarria da, zuzeneko musikagaz eta objektuen bidezko antzerkiaren bidez kontatua", azaldu dute konpainiako kideek. Domekan estreinatuko dute antzezlan, Elorrioko Arriolan. Nerea Ariznabarreta aktorea da protagonista, eta Maidier López arduratuko da zuzeneko musikaz. Obraren egilea Dora Cantero da eta bera arduratu da obra

zuzentzeaz; Idoia Barcelók itzuli du testua. Emanaldia 17:00etan izango da. Elorrioko Arriolan bertan egin dute obra aurkezteko eta estreinua iragartzeko prentsaurrekoa. Lau urtetik gorako ikusleentzat da antzezlan, konpainiako esanetan.

Elorrioko estreinaldiaz gainera, ia beste hogeit hamar emanaldi iragarri ditu konpainiak. Besteak beste, Donostian, Bilbon eta Barakaldon taularatuko dute *Kelsonia eta itsasoa*. Durangaldean ere hainbat emanaldi egingo dituzte: Berrizko Kultur Etxean (apirilak 23), Duran-

goko San Agustin kulturgunean (maiatzak 14) eta Zornotza Aretoan (maiatzak 20).

### Gazteekiko konpromisoa

Gorakada konpainia historikoa da Euskal Herrian; 1987an sortu zenetik, erreferentziazkoa bilakatu da, eta publiko gaztearekiko konpromisoa azpimarratu dute hasieratik. Azken sasoiari, *Ulisesen bidaia*, *Pinocchio* eta *Zuhaitzak landatzen zituen gizona* lanak aurkeztu dituzte; azken honengaitik dramaturgiarik onenaren Feten saria jaso zuten iaz.

## -Gailuk eta Otoik kontzertua emango dute Ateneoan

Kontzertuak 22:30ean hasiko dira, eta ondoren etxeko musika jartzaileak egongo dira Elorrioko kulturgunean

**MUSIKA** • A. M.

Ibilbide luzeko musikariak artista uzta berriagaz batuko dira barikuan Elorrioko Ateneoan. Ate-neON zikloaren barruan, -Gailu eta Otoik taldeek kontzertua emango dute. Okene Abregok, Mikel Abregok eta Mariano Hurtadok osatzen dute -Gailu hirukotea; Ne-gu Gorriak, BAP! eta Inoren Ero Ni taldeetan aritutakoak dira gipuzkoarrak. Ahotsa, bateria, baxua eta sanplerrak nahastuta sortzen

dituzte erritmo eta doinuak. Bestalde, Otoik taldea bizkaitik dator. Urtzi Izaren bakarkako proiektua da. Soinu teknikariak Euskal Herriko hainbat taldegaz lan egin du; besteak beste, Vulk, TOC eta Nize taldeekin. Taldeak *Tophus* lana argitaratu zuen iaz.

22:30ean hasiko da gaualdia. Sarrerak zortzi euroan (edari bat barne) erosi daitezke. Kontzertuen ondoren, etxeko musika jartzaileek girotuko dute gaua.



-Gailu. Galder Izagirre

## Gai librean

### Urdin

Astelehena da eta euria ari du. Tenperaturek nabarmen egin dute behera, neguko txanoa jantzi dut eta kamiseta termikoa estreinatu dut gaur. Lanera joateko prestatu naiz eta trenez abiatu naiz Bilborantz. Astea hasi da eta egunkariak titularrez bete dira.

Ingelesez "blue" berbak bi esangura ditu: kolore urdina eta tristura. Goibeltasunez egin dut atzera errepasoa durangar gisa, urtea hala hasi baitugu. Izan ere, hamarnaka urte igaro ondoren, aurten ez daukagu Gaztetxerik, Sorginola kuttuna erauzi baitziguten iaz. Erabat maitemindu gintuen Txoria Nuen Maite tabernak ateak itxi zituen duela egun batzuk, Durangoko milaka jatun, edanzale, dantzari eta borrokalariren zorigaiztorako. Spoiler: ez da aurten itxiko den negozio bakarra



Miren Erdoiza Mujika  
Irakaslea

**Goibeltasunez egin dut atzera errepasoa durangar gisa, urtea hala hasi baitugu**

**Mantapean sartu naiz eta amatatu dut burua. Kanpoan hotz gehiegi egiten du eta**

izango. Urtea erailketa matxistak salatzen hasi genuen, Gorabidekoek grebara deitu dute beraien lan baldintzak hobetzeko eskari zuzena zabalduz, eta pentsiodunek 5 urte bete berri dituzte astelehenero-astelehenero udaletxeko plazan elkartuta.

Titularrak gaur "Blue Monday" dela diost, eta jakin badakit, munduaren

argazki tristeari erreparatuz gero, Durango ez dela salbuespena. Hala izendatu dute asmatzaile kapitalistek urteko hirugarren astelehena, beraz; errazagoa baita eguraldi eskasarekin, lanera joan behararekin zein irribar batekin erantzutearekin titietaraino gaudela esatea baino. Ez baita samurra jada kontu korrontea hustu dizutela aitortzea, hezurretan eta odolean hotz gehiegi igartzen hasi zarela kontatzea, urtea nekatuta eta haserre hasi duzula esatea. Izan daitezela besteak gure min, desio eta beharrei izenak jarriko dizkietenak. Ingelesez baldin bada, hobe. Etxera bueltatu naiz eta berogailua piztu dezakedan pribilegiatu baten gisan, ohera sartu naiz Tristuraren industriak erabat gailendu nauen honetan. Mantapean sartu naiz eta amatatu dut burua. Kanpoan hotz gehiegi egiten du eta.

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Durangozko Ezkurdi Jai Alai pilotaleku eraberritua zesta eta pilota jaialdi banagaz inauguratuko dute. Asteon aurkeztu dituzte jaialdi biak. Urtarrilaren 27an izango da lehenengoa, eta egun bi geroago bigarrena.

Zesta jaialdia urtarrilaren 27ko barikuan izango da, 19:30ean. Partidu bi egongo dira ikusgai. Bata, emakumeena: Helena Barrenetxea durangarra eta Eneritz Lizardi mutrikuarra Erika Mugartegi markinarraren eta Maialen Aldazabal berriatuarren kontra. Bestea, gizonena: Aritz Erkiaga eta Jon Zabala Iñaki Goikoetxearen eta Unai Lekeriaren aurka. "Gaur egun zestan antolatuta daitezkeen jaialdirik onenetarikoak da", adierazi du Eraman Jai Alai enpresako Zigor Etxebarriak.

Pilota jaialdia egun bi geroago izango da, urtarrilaren 29an. Lehenengo, 16:30ean, Durangozko pilota eskolako gazteen partiduak egongo dira. Ondoren, 18:00etan, partidu estelarra hasiko da: Unai Laso eta Endika Uriondo Iñaki Artolaren eta Aimar Morgaetxebarriaren aurka.

Zesta jaialdirako sarrerak agortuta daude. Pilota jaialdirakoak [www.durango.eus](http://www.durango.eus) atarian eskuratu daitezke, 15 eurotan.

Bestalde, otsailaren 27tik aurrera emakumeen Winter Series zesta-punta txapelketako partiduak ere jokatu dira, hiru astez.

**Plaza "inportantea"**

Jaialdiak aurkezteko prentsaurrekoan Baiko eta Eraman Jai Alai enpresetako ordezkariak parte hartu zuten. Izan ere, jaialdiak enpresa bi horietako zestolari eta pilotariekin osatuta daude. Partiduez gainera, Durangozko pilotalekuak eurentzat duen

# Goi mailako zesta eta pilota partiduekin inauguratuko dute Ezkurdi Jai Alai pilotalekua

Jaialdiak urtarrilaren 27an eta 29an izango dira; zesta-puntan Aritz Erkiaga eta pilotan Unai Laso etorriko dira, besteak beste



Durangozko Udaleko arduradunak eta pilota eta zesta-puntat elkarrekin kideak, astelehenean, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

garrantziari buruz aritu ziren ordezkari biak. Baiko enpresako Unai Iglesias arduradun komertzialak adierazi zuen Durangozko pilotalekua aintzat hartuko dutela aurrerantzean. "Durangozko pilotalekua oso garrantzitsua da guretzat, eta urtean zehar txapelketetako partiduak bertan antolatzeke asmoa dugu", esan zuen.

Bestalde, Eraman Jai Alai zesta enpresako Zigor Etxebarria kideak adierazi zuen "aspalditik itxaroten" zuten momentua zela:

"Plaza inportantea da gure zirkuiturako, eta zirkuituaren barruan sartuko dugu. Aurrerantzean txapelketak Durangozko pilotalekuan antolatzeke esperantza dugu".

**Probatzeko "gogoz"**

Durangozko pilota eskolako eta Ezkurdi Jai-Alai zesta-punta eskolako arduradunek pilotaleku eraberritua ezagutu zuten eta "pozik" daude ikusitakoagaz. Biak otsailaren hasieran buelta

tuko dira euren 'etxera'. "Aldaketa handia da eta gustura gaude. Sarrera erakargarriagoa da. Zorruak itxura ona du eta probatzeke gogoz gaude", adierazi zuen pilota eskolako Txaber Zabalak. Antzera baten berba egin zuen zesta-punta eskolako arduradun Pedro Mari Garciak ere: "Politogeratu da". Zorua eta ezker horma probatzeke "gogoz" daude, zela-koak diren jakiteko.

Obrek iraun duten 10 hilabeteetan beste frontoi batzuetara

joan behar izan dute: pilota eskolakoak Durangozko San Fausto auzoko eta Mañariko pilotalekuetara; zesta eskolakoak, Izurtzakora.

**Azpiegitura "duinak"**

Bere aldetik, Ima Garrastatxu alkateak gogoratu zuen pilotalekua "sinbolo" bat izan dela urte askoan durangarrentzat, eta "garrantzitsua" zela eraberritzea. Erabiltzaileentzat azpiegitura "duinak" egin gura izan dituzte, eurak direlako "etorkizuna".

## Ziortza Isasi txirrindulari elorriarra Be Pink talde italiarrean arituko da aurten

Denboraldi honetan ere errepidea eta pista, biak, uztartuko ditu Ziortza Isasik. Asteburuan denboraldiko lehenengo lasterketa izango du, Anadiako (Portugal) belodromoan.

TXIRRINDULARITZA • M. ZUAZUBISKAR

Ziortza Isasi Be Pink talde italiarrean arituko da datorren denboraldian. Elorriarrak denboraldi baterako sinatu du. "Zeozer berria behar nuen eta eurekin hartu-emanetan ipini nintzen. Akordio batera heldu gara eta gogotsu nago denboraldi berrirako", aitortu dio Ziortza Isasik ANBOTOrri Portugaldik. "Taldea Belgikako lasterketa askotan egoten da eta niri lasterketa horietan

egoteak ilusioa egiten dit. Niretzat proposak izan daitezkeen lasterketak dira eta aldaketa honek beste helburu batzuk izatea ekarriko dit", jarraitu du Isasik. Be Pinken 14 txirrindulari daude eta Euskal Herriko zein Espainiako lasterketetan ere arituko dira.

Isasi Eneicat taldean aritu da azken urteotan eta berba politak izan ditu taldeko arduradunak diren Eneritz Iturriaga eta Humberto Go-

mezentzat. "Eneritz eta Humberto oso garrantzitsuak dira niretzat, eurekin hazi eta hezi naiz. Gainera, Eneritzen moduko txirrindulari bat norbere zuzendari izatea ohore bat da eta izugarri lagundu dit", aitortu du Isasik. Taldea "penaz" uzten duela aitortu du. "Pena handiagaz noa taldetik, baina momentua heldu da. Hala ere, badakit beti ondoan izango ditudala", gaineratu du elorriarrak.



Ziortza Isasi Eneicat taldeko elastikoagaz.



Udaleko eta txirrindulari elkarterko ordezkariak Gerediagan egindako ekitaldian. Abadiñoko udala proiektuaren babesleeta bat da.

## 23 urtez azpiko Abadiño Cycling Academia talde berria aurkeztu dute

UCI maila duen Eneicat taldeko arduradunen proiektua da; bost ziklistagaz hasi dute bidea

**TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO**  
Atzo txirrindularitza talde berri bat aurkeztu zuten Gerediagako ermitaren inguruan egindako aurkezpenean: Abadiño Cycling Academia. 23 urtez azpiko emakumeen taldea da eta Eneritz Iturriaga eta Humberto Gómez dira talde berriko sustatzaileak. Orain bost urte UCI Women Team mailako Eneicat taldea sortu zuten.

Iaz 4tik 14 urtera arteko umeei begirako Eneicat Abadiño eskola sortu zuten eta aurrera begira kadeteen eta juniorren taldeak sortzea dute helburu. Modu ho-

rretara, egitura berean umetik nagusietara heltzeko katea osatuko lukete. "Durangaldeko umeei bizikleta probatzeko eta gustatzen bazaie bertan jarraitzeko oinarriak eskaintzea da gure helburua", adierazi du Iturriagak. Une honetan, Eneicat Leongo (Gaztela eta Leon) taldea da, baina etorkizunean Abadiñora ekarri gura dute.

23 urtez azpiko talde berriak gazteetatik nagusietarako salto handia leuntzea du helburu. "Sarritan, 18 urteko bati 30eko bati exijitzen zaion berdina eskatzen

zaio eta hori ez dago ondo", dio Iturriagak. Bost txirrindulari-gaz ekin diote bideari. Hauetxek dira: Olatz Camino, Euskaldun Torneoa irabazia duen audioarra; iaz munduko txapelketan parte hartu zuten Almudena Morales eta Carolina Vega madrildarrak; ziklo-krosetik datorren Lidia Pinto asturiarra; eta iaz profesionaletan aritu zen Marta Rosillo gaztela-leondarra. Lehenengo hirurek 18 urte dituzte eta beste biek 19 urte. Urtearen erdian Leire Azpitarte iurretarra sartuko da taldean.

## Basatzen mendi bizikleta martxa solidarioa, hilaren 28an

Zaldai Mendi Taldeak Angelman Sindromea elkarteari emango dio izen-emateagaz lorturiko diru gutzia

**MENDIA • J.D.**

Zaldai Mendi Taldearen Mendi Astea ekitaldiz beterik dator. Basatzen mendi bizikleta martxaren VI. aldia da eurretari bat. Urtero lez, kirola elkartasunagaz lortuko dute eta izen-emateagaz ateratako dirua Angelman Sindromea elkarteari emango diote. Aurretik izena ematea ([www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com)) 10 euro da; egunean bertan, 12 euro. Izena ematen duten lehenengo 50 lagunek kamiseta bana jasoko dute opari. Martxa 10:00etan hasiko da, Askondoko aterpean. Ibilbideak 25 kilometro ditu, eta 1.000 metroko desnibela.

Egun bereko arratsaldean, 18:00etan, beste ekimen bat ere izango da: Gallandara irteera,

frontalagaz. Umeekin egiteko moduko ibilbidea da.

**Dokumental emanaldiak**

Mendi Astea *Bakardade Zuria*, *Laponia* dokumentalaren emanaldia-gaz hasiko da, urtarrilaren 25ean, 19:00etan, Goiuria kultur gunean. Hantxe egongo dira egileak: Leire Urretxo eta Nerea Iztueta.

Hurrengo egunean, Yosemiteri buruzko *Egun on capitán* ikus-entzunezkoa emango dute, 19:00etan, toki berean. Han ere egongo dira protagonistak: Maite Zumarraga eta Idoia Rubial.

Mendi Astearen barruan, Amaia Egidazu ipuin kontalaria- ren saioa ere egongo da, hilaren 29an.



Askondoko aterpearen ondotik irtengo dira.

## Jokaldia

### Zorutzen naizela

Hasi da, hemen dugu jadanik Rock and Rolla eta zorutzen ari naizela esan daiteke. Denboraldi hastapeneko lehen pedalkadak ematen ari dira munduaren beste puntan. Australia izan ohi da ziklismozaleontzako aurreneko hitzordua. Gogotsu hartzen dugu aussien lasterketa, garai batean ez bezala. Nola aldatzen diren gauzak, kamarada. Duela urte batzuk ez genion inongo jaramonik egiten eta egun, esnatu, ohetik altxatu eta irrikan izaten gara etapa nork irabazi duen jakiteko. Hego hemisferioan uda betean dira; hemen, berriz, neguan. Kanpoko hotzari aurre egiteko, tabernaren batean salda badago irakurtzeko esperantzarekin izaten gara. Egunetik egunera lasterketa bat antolatzea zaila dela dakusagun une honetan, sarri pen-



Alfonso Arroio Monasterio  
Kirol kazetaria

tsatu dut hau dena aldatu nahi nukeela. Ispiluaren aurrean jarri eta euskal ziklismoa non dagoen eta nora doan aztertu beharko genukeela. Historian zehar

**Danimarka eta Norvegiako kasuak datozkit burura. Harrobia ezin hobeto landu eta uzta jasotzen ari dira**

poztasun handiak eman dizkigu; une etengabeak izan dira. Orain, ordea, irauten ari dela deritzot. Goi mailan hamabi euskal ziklista edota Euskaltel-Euskadi, Caja Rural eta Kern Pharma bigarren mailan ditugun arren, etorkizun hurbila bederen, ez da oparoa ikusten. Gure izarren dir-dirrei ez zaie askorik geratzen,

gehienek 30 urteak igarota dituztelako. Hori erretreta hartzean, urte batzuetan komeriak izango ditu euskal ziklismoak mundu mailan onenekin mokoka aritzeko. Zerbaiten beharra dauka, epe luzerako plangintza bat. Danimarkako eta Norvegiako kasuak datozkit burura. Harrobia ezin hobeto landu dute eta emeki-emeki uzta jasotzen joan dira, azken urtean goia jo arte. Inguru hotz haietan, era guztietako ziklistak zaildu dira: esprinterrak, klasikomanoak, igotzaileak... Lan paregabe baten ostean emaitzak jaso eta iazko Tourraren hasierak eta amaierak bat egin zuten hazkundearekin. Eskutik oratuta, ton-torrera heldu dira. Hemen, ordea, ustea dut batzuek etxea teilatutik hasi dutela, oinarria aintzat hartu gabe. Tourra igaroko da, eta gero, zer? Baikorra izan gura dut, ez dago ilusio faltsurik.

# Osasun gida



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**

 **Odontologia**  
PSE: 26/22

**viteri**  
HORTZ-KLINIKA  
Konfiantzazko hortz-klinika Durango

**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,  
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA  
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR  
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**

Ordutegia:  
Astelehenerdik ostiralera: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00  
Larunbata: hizordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30  
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia  
[www.clinicadentalviteri.com](http://www.clinicadentalviteri.com)

 **Optometria**  
PSE: 162/13

**Naiia  
Zabala  
Azumendi**  
11587 kol. zk.

**keinu**

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99  
[www.keinuoptometriazentroa.com](http://www.keinuoptometriazentroa.com)

 **Proktologia**  
PSE: 16/22

**prōktós.clinic**

**Uzki eta zoru-pelbikoko  
patologiaren tratamendua**

Mikeldi Kalea, 13, 48200  
Durango, Bizkaia  
(MAM Zentroa)  
674 322 360 / 747 474 699  
[info@proktoklinika.eus](mailto:info@proktoklinika.eus)

 **Fisioterapia**  
PSE: 57/16



**pablo zubizarreta**  
fisioterapia & osteopatia

**Muruetorre, 2D  
DURANGO**

[pzubizarreta@gmail.com](mailto:pzubizarreta@gmail.com)  
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**  
PSE: 145/13



**clínica dental | hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA •  
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •  
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA  
IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PADI •  
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO  
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetorre, 2C blokea, behea -  
48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454  
[uecdental@gmail.com](mailto:uecdental@gmail.com)

 **Podologia**  
PSE: 214/06



**OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ**

Herriko gudarien kalea, 10 behea  
DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

 **Fisioterapia**  
PSE: 119/13

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**  
Ane Legorburu Munitxa

Pilateseko klaseak eskaizten ditugu.  
Saio pertsonalizatuak dira,  
talde txikietan.

**Trañabarren 13, 4. blokea  
behea eskuma MATIENA-ABADIÑO**

944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119 -13

## Botikak

**BAKIKUA, 20** · 09:00-09:00

BALENCIAGA,  
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 21** · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,  
J.A.ABASOLO 2 - DURANGO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-13:30

BALENCIAGA,  
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

NAVARRO,  
ARTEKALEA 6 - DURANGO

DE DIEGO,  
INTXAURRONGO 22 - DURANGO

BAZAN,  
URIBARRI 5 - DURANGO

CAMPILLO,  
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

SARRIA,  
SASIKOA 17 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,  
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,  
TRAÑABARREN 15 - ABADIÑO

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR  
14 - ZORNOTZA

GOIRIA,  
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,  
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

**DOMEKA, 22** · 09:00-09:00

IRIGOIEN,  
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA, 23** · 09:00-09:00

SARRIA,  
SASIKOA 17 - DURANGO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 24** · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,  
MURUETATORRE 2C - DURANGO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 25** · 09:00-09:00

CAMPILLO,  
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**EGUENA, 26** · 09:00-09:00

NAVARRO,  
ARTEKALEA 6 - DURANGO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA



**GOZATU GOZOTEGIA**

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
661 40 14 00  
gozatudurango@gmail.com  
f Gozatu Gozotegia  
g gozatugozotegia



Zorionak, maitial! Poztasun horrekin jarrai dezazula espero dugu. Danel, aita, ama, amama, osaba, izeko eta Naiaren partez.

## Eguraldia

ZAPATUA ↓ 1° / 7° ☁

ASTELEHENA ↓ 1° / 7° ☁

EGUAZTENA ↓ 2° / 8° ☁

DOMEKA ↓ 1° / 7° ☁

MARTITZENA ↓ 1° / 5° ☁

EGUENA ↓ 4° / 7° ☁


# hitz

artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

liburudenda



BAR GLORIA  
Nerea Ibarzabal  
(Susa)



M, AMA, EME, UME  
Erika Lagoma /  
Estibcu Fernandez  
(Elkar)



MUNDUARI BIRA  
EMAN ZION ONTZIA  
Joseba Sarrionandia / Ares  
(Pamiela)

#salduenak

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso



clínica dental hartzklinika  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTOLOGIA · KIRURGIA  
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA  
ODONTOLOGIA PEDIATRIKOA · PADI · HORTZETAKO ESTETIKA  
HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

## “Umorea erronkei aurre egiteko eta bizitza ikusteko beste modu bat da”

Xabier Malatsaetxebarria 'Naufragoak' saioa irabazteko ateetan geratu zen; bigarren amaitu zuen. Erronkazalea dela dio, eta horrelako abentura baterako prest dagoela beti

**Xabier Malatsaetxebarria**  
**Lejarza**

'Naufragoak' saioko lehiakidea  
**ELORRIO | 1997**



**ELORRIO • AITZIBER BASAURI**

Xabier Malatsaetxebarriak gogoko du barrea eragitea, eta apur bat *showman* lez ikusten du bere burua. ETB1eko 'Naufragoak' saioko umore bikotea osatu dute berak eta Juan Pablo Mariasek, eta abenturak oraindino gehiago batu dituela dio. Irabazteko atarian geratu zen arren, azken arte disfrutatu du abentura eta argi du errepikatu egingo lukeela; teknikoki hobeto prestatuta, hori bai.

**Ateetan geratu zinen azkenean.**

Bai. Abentura osoan zehar, egun bat gehiago iraute hutsa nire buruaren mugak gainditzea izan

da, erronka bat gehiago gainditzea. Bada, asko poztu ninduen azken egunera arte han egongo nintzela ikusteak. Finala irabazi egin gura nuen, besteek lez. Baina aukerarik ez nuela ikusita momentua disfrutatzea erabaki nuen, eta proba amaitzen ahalegintzea, helmugara heltzean zer sentitzen den jakiteko. Oso pozik nago egindakoagaz.

**Horren urrun heltzea itxaroten zenuen?**

Ez. Ondo kontrolatzen dut gorpuzta, baina teknikoki ez nintzen batere prestatu. Harro egoteko moduko abentura egin dudala

uste dut. Txarto pasatu dut, baina oso momentu onak ere bizi zan ditut.

**Saioari gatza eta piperra ipini dizkiozue. Halako esperientzia bat bizitzeko premiazkoa da umorea?**

Bai, eta dena emateko prest egotea ere bai. Azken finean, 'reality' bat da. Nik neuk ere, ikusle modura, asko eskertzen dut dena ematera doan lehiakidea, bere alde desberdinak erakustera doana, umorea, haserrea... erakustea. Horrek erakarri egiten du ikuslea. Juanpak eta biok umorez jokatu izan dugu beti, eta argi genuen ikusleari zeozer gehiago eskainiko geniola.

Erronkei aurre egiteko eta bizitza ikusteko beste modu bat da umorea, bizikidetzarako beharrezkoa. Umoreak asko lagundu digu erronkei aurre egiten.

**Esperientzia errepikatuko zenuke?**

Dударik barik. Seguruenik bikotekide beragaz. Lehiatzeko, probak muntatzen laguntzeko edo beste edozertarako. Horrelako abentura baterako prest nago beti! Txalupatik salto egin eta begiak zabaltzean irla ikusi nuen, barrua irauli egin zitzaiz-

**Horrelako esperientzia bat bizitzeko premiazkoa da umorea, eta dena emateko prest egotea**

dan. Bost bider egin dut castinga 'El Conquis'-en parte hartzeko. Bada, antzerako abentura bizitzeko aukera ikusi nuen saioaren berri izan nuen. Argi nuen joan gura nuela, eta Juanpa sokatik tiraka eroan nuen.

**Beraz, reality zalea zara?**

Reality zalea baino gehiago, erronka zalea. 'El Conquis'-ek erronka fisikoa eta psikologikoa eskatzen ditu, eta nire mugak non dauden topatzeak asko motibatzen nau. Aukerarik badut, seigarrenez aurkeztuko naiz datorren urtean.

**Elorrioko errugbi taldeko lehenengo maskota ere izan zinen. Zelako lana da?**

Orain lau urteko kontuak dira horiek. Mailaz igotzeko ginen eta taldearen irudia den azkonarragaz maskota bat sortzea pentsatu genuen. Errugbian 12 urtean jokatu ondoren, parte hartzen jarraitzeko modua ere izan zen maskota lez jardutea. Mailaz igo arteko partiduz guztietan irteten nuen. Maskota ezin da geldirik egon, ahalegin fisiko bat eskatzen du (barrez). Gainera, keinu eta irudi batzuk ikasi behar dira. Orain jokalarien artean txandakatzen dira. Errugbi Eskolako umeekin agerraldiak egitera eta errugbiarekiko zaletasuna piztera bideratuago dago.

**Lauhortza**

Karolina Suarez  
Borges  
Kazetaria



**Elegante**

Hitz bakarrarekin deskribatu du aitak Ezkurdi Jai Alai frontoia obrak bukatu eta argazkiak ikustean. Pala jokoan aritu zen han; osaba, ordea, puntista profesional egin eta Miamin bizi da geroztik. Ezer gutxi dakit frontoiko jokoez, baina txikitatik ikusi ditut senideen etxeetan osabak erabilitako zestak zintzilik, garai-pen-ikur legez, jokatzeko hutsa sobera harro egoteko arrazoi balitz bezala. Beste kirol batzuen kasuan ez dut ikusi; bitxia bezain polita iruditzen zait.

Ezer gutxi dakit, interesa falta izan zaidalako. Halere, Gernikako frontoira joatea otu zitzaidan orain gutxi, harrabotsak jakin-mina piztuta. Txundituta geratu nintzen. Geroztik, zale haiek bezala, herriko pilotalekua herritarroa sentitzeko gogoz naiz, etxe-koek oroimenean gorde dutena oroi-pen hutsa izateari uzteko.

Askotan egon naiz Ezkurdi frontoian, baina utzikeriagatik itxita egon behar izan eta gero, bihozkada daukat hurrengo aldia ezberdina izango dela, izan ere, badaude horretarako baldintzak.

Irakurri dut Helenak 2020an hamahiru urte zituela Ezkurdi Jai Alai ez ahazteko erakundeei helarazi zien poema. Ordura arteko kudeaketaz jakitun, bizipoza ematen zionari hiltzen ez uzteko eskatu zien. Bada, lortu du, eta gainera, hobea izango da, berak beste bi emakumerekin batera inauguratuko duelako.

Emango dituzten pilotakaderek bira emango diote Durangoren historiari. Datorren urtarriaren 27ak, nahitaez, karga politiko eta sozial handia izango du. Eta hau guztia nola ikusten duen aitak? Elegante.

**ESKELAK**

946 816 558 · [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org)

[anboto.org/eskelak](http://anboto.org/eskelak)

Anbotokideek deskontua izango dute.

